

Hain urrun eta hain hurbil

Miren Azkarate
Badiola

Estatu espainiarreko hauteskundeak pasa berri diren honetan eta nazioartetik gerra hotsak no-nahi ditugun honetan, bi gaiak nolabait lotzen dituen kezka batekin nator gaurkoan. Izan ere, aurreko batean aspaldiko partez zinera joan nintzen. Espainiako gerra zibilari buruzkoa zen filma eta bertan sator bezala ezagutzen diren pertsona horietako baten bizitza kontatzen da. Satorrak haien etxean bertan, zulo batean ezkutatuta urte mordo bat (batzuek 30 baino gehiago) pasatako pertsonak dira; kanpora begira existitu-

ko ez balira bezala bizi direnak edo bizirauten dutenak, haien senideek soilik dakitelarik bertan daudela. Ez da gerra zibilean bakarrik gertatu, Euskal Herriko gatazkan ere baditugu horren adibideak. Hala ere, ez nator gaurkoan pelikula kontatzera edo gai zehatz honetaz hitz egitera, atentzioa eta zer pentsatua salan ginen ikusleek eman baitzidaten. Batetik, uste nuen estreinaldia izanik eta oso eguraldi txarra egonik sala lepo beteta egongo zela, baina ez, hortxe nire lehen sorpresa, erdia hutsik zegoen. Bestetik, adinaren batez bestekoa 60 urte-

tik gorakoa zen; beraz, seguru aski ni nintzen gazteena! Ondorengo egunetan antzerako panorama egon omen da eta hortik ondorio garbi bat behintzat ateratzen dut: gerra zibilak ez du interes handirik sortzen, eta gutxiago gazteen artean. Ondorio horrek larritasuna sortzen dit barrenbarrenean, are gehiago faxismoaren esnatze berri hau bizitzen ari garen unean. Gehiengoak urrun ikusten du, behar bada, nire ustez, atzo gertatu zena. Norbaitek zioen bezala, «historia ahazten duen herriak errepikatzeko arriskua du». •

Zu bekatari

Antton Izagirre

Gizakion eguneroko jardunean, maiz aurkitzen dugu geure burua gure zein besteen jokabideen gaineko juzguak eginez; eta ia zalantzarik gabe esan dezakegu beti ez dugula neurgailu berbera erabiltzen edota erabiltzen dugun neurgailua trukatuta dugula. Esan nahi baita, erabiltzen dugun betaurrekoen kristalaren kolorea nahierara aldatzen dugula alde batera ala bestera begiratzean. Gizartean ematen diren gertakariei begiratzeko trebezia hori, baldintza genetikoek emana ez baino, kulturala dela esango genuke. Hala, gizarte gaiekiko dugun ikusmoldea, neurri handi batean, jaio, hazi eta bizi garen gizarteak

ezartzen digun moldetik kanpo ezin dugu ulertu. Hala ere, gizarte zientziek bere-berea dute ikusten dutena arrazoiaren galbaketik pasatzeko joera eta betebeharra. Gertakariak ez baitira gertakari soilak, esanahi sinbolikoa dute eta gizarte analistek, interpretatzerakoan, arau unibertsala bilatzen dute; hau da, gertakari bertsuentzat esanahi bera izango duena. Horretan, sarri, hankamotz ibiltzen gara. Adibide esanguratsua, Euskal Herrian urteetan eman den gatazka politikoa eta armatua ebazterakoan, Urkulluk erabili duen “Inor hiltzea gaizki egon zen” leloaren erabilpenean aurkitu du-

gu. Ustez, egia osoa, zalantzarik gabea, ongiaren eta gaizkiaren muga-lerroa, unibertsala denak, praktika koherentea eskatzen du. Printzipioaren kaltetan, Urkulluk ez du kasu guztietarako erabilera berbera egin. Joera politiko jakin baten aurka instrumentatu eta, interes politikoen mesedetan, erabilera partikularra egiten denean, balio unibertsala ukatzen zaio. Biktima izaera aitortzerakoan, nabarmenegia da alde batekoentzat erabiltzen duen betaurrekoen kristalaren kolorea eta bestekoentzat duen lausotasuna. Ez dago unibertsaltasunik printzipioa eta praktika banatzen direnean. •